

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten du **ondasun higiezinaren gaineko zerga ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**ren inguruan, Udaltzaren azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Herritar batek, bere eskubide konstituzionalak baliatuz, bere jabetza pribatua modu batean ala bestean erabiltzea erabakitzen badu, ez ginateke kezkatu behar. Baina bai kezkatu beharko ginateke administrazio publikoek beren ondasun higiezinak edo ondasunak modu ezegokian erabiliko balituzte. Ez litzateke onargarria izango alokairurako etxebizitza publikoak hutsik egotea, are gutxiago Donostia bezalako hiri batean, bertan etxebizitza eskuratzea arazo gaindiezina baita herritar askorentzat.

Hori dela eta, **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten dugu.

Honako hau dioen tokian:

22. art.- Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, subjektu pasiboa dela kausa errekarua aplikatzeari lotuta ez daudenak.

Ez zaie errekarua hau aplikatuko Udaltzaren, haren erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta kapital osoa Udaltzaren duten merkataritza sozietateen jabetzako etxebizitzari.

Hau esan beharko luke:

22. art.- Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, subjektu pasiboa dela kausa errekarua aplikatzeari lotuta ez daudenak.

Errekargu hau aplikatuko zaie Udalaren, haren erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta kapital osoa Udalarena duten merkataritza sozietateen jabetzako etxebizitzetzi, baldin eta etxebizitza huts gisa jotzeko baldintzak betetzen badituzte.

Donostian, 2022ko abuztuaren 3an

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea